

6 mantangorri

iRAKURRI, ETA ONDO PASA!



MARTINBER
ETA LAGUN • Kultura

Hazi eta irabazi D ereduau!

Urte berria estreinatu dugu, eta, pixkanaka, badoa ikasturtea aurrera. Hurrengo ikasturteari begira, baina, ikastetxea aukeratzeko garaia iritsi da! Otsailean zabalduko da 2013-2014ko ikasturterako aurrematrikula egiteko epea. Aurrematrikulazio kanpainan D eredu bultzatzeko asmoz, D ereduaren aldeko kanpaina abian jarri dute Nafarroako zenbait udalek. Irrien Lagunak klubeko pertsonaien lagunza izan dute udalerriek horretarako. Haurrak eskolaratzeko garaian, euskaraz irakasten duten ikastetxeen matrikulatzen animatu nahi dituzte gurasoak kanpainarekin.



Besteak beste, pailazoek eta Irujo pilotariak parte hartu dute kanpaina. AMETS BADIOLA






Ipuintxo bat eta bideo interaktibo bat sortu dute, D ereduaren abantailak eta onurak azaldu, eta gurasoek seme-alabentzako euskarazko eredu hautatzen anima daitezzen. Porrax, Pirritx, Tiritatxo, Mari Motots eta klubeko beste hainbat pertsonaien alboan, Nafarroako pertsonaia ezagun eta famatuak euren esperientziak kontatu eta iritziak plazaratzen dituzte. Ipuinean agertzen dira, besteak beste: Juan Martinez de Irujo pilotaria; Koldo Moreno Atarrabiako notarioa; Samira Al-Amaoui marokoarra; eta Mikel Rojano, Zangotzako ikastolan D ereduau ikasi zuen eta egun AEbetan bizi den gaztea.

DENBORA-PASAK

1. Puzzlea

Oalentzerok puzzle bat oparitu dio Eiharri.


**Pieza bakarra
falta zaio
amaitzeko. Zein?**



2. Buruhausteak

Nola demonstre lortu ote ditu emaitza horiek Jokinek?

**Jarri
beharrezko
eragiketa
ikurrak,
emaitza
horiek
lortzeko.**



$$25 \square 3 \square 10 = 18$$

$$14 \square 2 \square 1 = 11$$

$$3 \square 7 \square 1 = 9$$

1.- D da falta den pieza. 2.- $25 + 3 - 10 = 18$; $14 - 2 - 1 = 11$ eta $3 + 7 - 1 = 9$.

Erantzunak